

Goi Mailako
Lanbide
Heziketa

Elikagaien
industriak

Elikagaien prestakuntzako teknikaria



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza

El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

Elikagaien prestakuntzako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Landare kontserbak fabrikatzea

- Landare kontserbak egiteko behar diren lehengaiak eta gehigarriak jasotzea, kontrolatzea eta baloratzea, eta amaitutako elikagaiak biltegitratzea eta bidaltzea.
- Lehengaiak prestatzea elikagaiak egiteko, beharrezko kalitatea, higiena eta segurtasuna bermatuta.
- Landare kontserbak, zukuak eta plater kuzinatua dosifikatzea, betetzea eta ixtea, eta kalitatea ziurtatzeko prozedurak eta arauak betetzen direnez egiaztatzea.
- Kontserbazioko azken tratamenduetan aintzat hartzea kalitatea eta higiena ziurtatzeko ezarritako zehaztapenak.

Kontsumorako esneak eta esnekiak prestatzea

- Esnea eta esnekiak jasotzeko, biltegitratzeko eta tratatzeko lanak egitea.
- Kontsumorako esneak, esne lurrunduak, esne-hautsak eta kondentsatuak, eta esnegaina, gurina, izozkiak eta antzekoak egiteko lanak zuzentzea eta kontrolatzea.

- Esnekiak, jogurtak eta esne hartzitua prestatzeko lanak egitea.
- Esnekiak ontziratzeko eta atontzeko lanak zuzentzea eta kontrolatzea.

Osatu gabeko lanbide kualifikazioak

Harategia eta haragizko produktuak prestatzea

- Haragizko lehengaien eta osagarrien jasoketa eta biltegitratzea kontrolatzea, eta haragizko pieza eta produktuen bidalketa ere bai.
- Haragizko produktu industrialak prestatzea eskatzen diren kalitatea eta higiena mantenduta.

Arraindegia eta arrantza eta akuikulturako produktuen prestakuntza

- Arrantzako produktuen kontserbak, erdikontserbak eta salazoiak prestatzea janarien kalitateaz eta segurtasunak ezarritako arauari jarraituz.
- Arrainezko edo itsaskizko masak, pastak, produktu izoztuak eta plater kuzinatua edo aurrekoizinatua prestatzea kalitatea eta higiena bermatuta.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

www.educacion.navarra.es

Elikagaien industriak

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Teknikari hauek era askotako enpresetan ariko dira, hau da, bai teknologiaren aldetik, bai antolamenduaren aldetik oso desberdinak diren enpresetan. Besteren konturako langileak dira. Kualifikazio bereko edo maila baxuagoko kualifikazioko pertsonekin ariko dira lantaldeetan banako eta taldeko lanak eginez ondoko arloetan: lehengaien eta osagarrien jasotzea; produkzioeko ekipoak prestatzea eta erabiltzea; elikagaiak prestatzeko, ontziratzeke eta paketatzeke lanak kontrolatzea; kalitatearen kontrolaren sustapena; amaitutako produktuak biltegitratzea eta bidaltzea.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Elikagai prestatzailea.
- Elikagaiak tratatzeko eta prestatzeko makina eta ekipoetako operadorea.
- Produktuak ontziratzeke eta paketatzeke lineetako operadorea eta kontrolatzailea.
- Jasotzailea eta biltegitzaina.
- Produkzio lineei lehengaiak eta materialak hornitzen dizkiena.
- Dosifikatzailea.
- Linea ikuskatzailea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Janariaren industriako lehengaiak.
- Lehengaiak egokitzeko lanak.
- Elikagaien industriako prozesu teknologikoak.
- Segurtasuna eta higieena janariaren manipulazioan.
- Mantentze elektromekanikoaren printzipioak.
- Enpresa eta ekimena.
- Elikagaiak eraldatzeko eta kontserbatzeko tratamenduak I / II.
- Elikagaiak prozesatzea.
- Elikagaien salmenta eta merkaturatzea.
- Biltegitratzeko lanak eta biltegien kontrola elikagaien industrian.
- Elikagaien industriako produkzio-lineen kudeaketa.
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa.
- Lantokietako prestakuntza.